

Gasteen Gurutze Gorria 



JOSTAILUAK BILTZEKO KANPAINA  JOSTAILU EZ-BELIKOENGATIK



 *Gasteen Gurutze Gorria*

Gabonak badatoz eta, Gabonekin batera, haurrentzako oso une gozoak: jolasteko, aisialdiaz gozatzeko eta gau magikoan opariak ilusio handiz jasotzeko garaia da.

Hala eta guztiz ere, haur guztiak ez dute jostailurik eskuratzeko aukera; agian bakar bat ere ez dute eduki sekula.

Gurutze Gorriko Gazteria Sailean haurren eta gazteen bizi-kalitatea hobetzeko lan egitea dugu helburu eta ongi dakigu zein beharrezkoa den haurren ikaskuntza, sozializazio eta sormen prozesuetan jolasa sustatzea.

Ikuspuntu honetatik abiatuta eta heziketaren muinari helduz, gerra-jostailuak ez direnak erabiltzeko eta erosteko ekintza berriak bultzatuko ditugu indarkeriarik ezaren alde sentibilizatzeko eta jostailuak biltzeko,

Parte har dezagun denok eta ea lortzen dugun indarkeria haurren heziketatik eta ikaskuntzatik indarkeria baztertzea.

Lagundu iezaguzu!



**ARMAGABETU
ZURE JOLASAK**

leloa duen kanpaina honen bitartez.

Horrela beraz, berriz ere gure hiri eta auzoetara irten gara mezu hau zabaltzera eta berdintasunaren, gizarte-justiziaren eta haurren eskubideen alde lan egitera. Horretarako, gizartearen erantzun solidarioa sustatuko dugu, jostailurik jasotzen ez duten haurrei jostailuak eskaintzeko eta herrian arazo hau plazaratzeko.

Hortaz, haurrengan sormena eta irudimena sustatzen duten, soziabilitatea eta parte-hartzea bultzatzen duten, adinei egokituta dauden eta elkartasuna, tolerantzia eta berdintasuna bezalako baloreak sustatzen dituzten jostailuak gomendatzen ditugu.

Hainbat aukera dituzu:

- ✚ *Kanpainarako jostailu berriak eta hezigarriak ematea.*
- ✚ *Jostailu ez-belikoen erosketara eta indarkeriarik ezaren aldeko jarrerak sustatzea.*
- ✚ *Haurren adinera egokitutako jostailu ez-sexistak ematea.*
- ✚ *Egingo diren jardueretara joatea eta Kanpaina zure familian, lagunengan, auzokoengan eta abar zabaltzea.*

Jarri gurekin harremanetan. Kanpainaren berri emango dizugu.